



SALMANT-**IKAS**

KANALAK

Gure aplikazioak webgune propio bat izango du, non jendea sartu eta jolastu ahal izango duen. Online denda bat bezala izango da, handik saldu egingo ditugu plataformarako lizentziak. Gainera, bezeroei aplikazioari buruz jakinarazteko iragarkiak sortuko ditugu. Adibidez, jendea interneten sartuta dagoenean beste web orrietan, iragarkiak agertu egingo dira. Horrela, jendeak aplikazioa ezagutuko du eta interesa izango du.

Iragarki horiek sarbide bat izango dira, gure webgunera sartu ahal dira zuzenean, baina ere sar daitezke interneten bilatuz. Han daudenean, eskuratu ahal izango dute aplikazioaren lizentzia. Aukera izango dute webgunean bertan aplikazioa erosteko.

Kanalaren faseak:

- ***Pertzepzioa:** Iragarki horietan azalduko da zer den gure aplikazioa, zertarako erabiltzen den eta nola eskuratu ahal duten.
- ***Ebaluazioa:** bezeroek aplikazioa ebaluatu dezaten, irakurri ahal izango dute aplikazioari buruz. Baita ere prueba txiki bat egin ahal dute ikusteko nola funtzionatzen duen.
- ***Erosketa:** noski, bezeroek aplikazioa instalatu/erosi aurretik ikus dezakete zenbat ordaindu beharko duten.
- ***Entrega:** erosten dutenean, gmailez ailegatuko zaie mezua. Han jarriko du erosketa egiaztatu dela eta kodigo bat ere ailegatuko zaie. Kodigo hori sarbidea ematen die aplikazioan sartzeko. Ingeleseko liburu digitalen antzeko lizentzia bat izango da.
- ***Salmenta ondorengoa:** azkenik, erosi ondoren, bezeroak gure mugikor zenbakia izango du eta arazoren bat edo laguntza behar badu, enpresaren zenbakira dei dezake.